



Abuztuaren 2an beste lan-erreforma egin zuten

Auzitegiek ERE eta kaleratze asko atzera bota dute. Erreforma honen bidez, lehengoaren "puntu ahulak" itzi nahi dituzte justiziaren lana baliogabetzeko.

Historikoki, abuztuaren hilabetea aprobetxatu dute "krisialdian" lan eta gizarte eskubideen kontrako erreformak egiteko. Larriena, 2011. ko irailaren 2an onetsitakoa, aurrekontuen lehentasuna zor publikoarekin espekulatzen dutenei kobratzea ahalbidetu zuena ("krisi"-aren errudunak), Zapateroren esku.

- Ordutik egindako erreformak eta murrizketen informazioa zehatza ikus dezakezue 7 eta 14 aldizkarietan.

Abuztuaren 2an onartutako erreforma, beste gauza guztien artean, honako hau ekartzen du:

- EREetako negoziazio-komisioen tamaina mugatzen du, **mahai bakar batean negoziatzera derrigortzen lan-zentru batzuetarako denean**. Horrekin, sindikatuen ordezkariak kendu nahi dute, batez ere lan-suntsiketaren kontrako borroka aurrekusten den esparruetan (Euskal Herria, adibidez).
- **Kanpoko multinazionalen euren finkatutako kontuak aurkeztearen beharra kentzen diete**. Sozietate hauek euren kontuak manipulatzeko duten erraztasuna aintzat hartuta, eta herriz-herri komeni zaien moduan galerak (EREak aurkezteko edota zergak ez ordaintzeko) eta etekinak nola lortzen duten ikusita, benetako astakeria da neurria, eta enpresa erraldoi horiek eta gobernuek zer harreman estua duten beste adibide bat baino ez da.
- **EREak baliogabetzeko zioak murrizten dira**. Enpresa askotan epaileek atzera bota dituzte EREak. Bere garaian, sententziak agertu zirenean, ELAk argi eta garbi esan zuen gobernuek neurriak hartuko zituela berriro ez gertatzeko. Azken finean, Confebask-ek esaten zuenez, epaileen lanak ezin du enpresako borondatearen kontra joan. Zigor gabetasun osoa.
- Era berean, **bakarkako salaketan bidez egindako erreklamazioak oztokatzen dira**, behin epai irmoa edota adiskidetzeko egonda.

GFI Norte-ko laburrak

- Ibermatica-GFI UTE-k Osakidetzako sistema eta aplikazioetako laguntza teknikoko zerbitzua irabazi egin du, **7,2 milioi eurokoa**.
- ELAko ekonomilariak GFI Nortek merkataritza-erregistroan **2012 urteari buruzko utzitako dokumentazioa** aztertzen ari dira, eta hurrengo egunetan ateratako ondorioen txostena luzatuko dizuegu.

110 egun falta dira hitzarmen barik geratzeko

Uda pasa eta gero, negoziazioak hasiko dira. Azken bultzada emateko ordua da.

Sindikatuak deitutako ekainaren 27an egindako manifestazioa eta gero, eta patronalarekin izandako azken bileran uztailaren 12an ikusita, non ez baitute inolako borondatearik erakutsi, ezta negoziatorako jarrera-aldaketa ere, **negoziazio-mahaiaren sindikatu guztiok gure jarrera gogortu behar dugula adostu dugu**.

Hurrengo egunetan asanbladak egingo ditugu enpresetan eta informazio guztia emango dizuegu, eta baita mobilizazioen egutegia ere.

Auzitegi Nazionalak, 2013/07/23. ko epai batean, **estatuko hitzarmenak** bere horretan jarraituko duela ebatzi du, nahiz eta iraungitu duen arren. Hots, epaiak iraungituztat jotzen ziren hitzarmen batzuen indarraldia bermatzen du.

Tamalez **Bizkaiko hitzarmena ez du horri buruzko artikulurik**, eta ondorioz kalean borrokatu beharko da.

Prestakuntza barik jarraitzen dugu

UGT, USO eta CCOO-k gutxiengoan sinatu dute akordioa ez du enpresa behartzen ezer egitera.

Batzordeak urtearen hasieran enpresari heziketari dagokionez legea betetzeko eskatu zion. Kurtsoak argitaratzea tauletan, eta langileei joateko aukera ematea, batez proiektu barik daudenei.

Negoiazioa hasi zen, eta ELAk antzua zela argi eta garbi ikusi zuen enpresak proiektuetako arduradunen pean zegoela hori guztia adierazi zuenean inolako konpromezurik ez zuen dokumentu baten bitartez.

Batzordeak emango dizkiguten kurtso guztien kontrako txostena egiten jarraituko du, eta legea betetzen ez den bitartean, eta **prestakuntza GFI-Norteko langileak birkokatze erabiltzen ez den bitartean** lan-ikuskaritzan salaketak jartzen ere jarraituko dugu.